## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.042**

Arabako Biltzar Nagusiek 2005eko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

39/2005 FORU ARAUA, URRIAREN 17KOA, ZUZENAK KIROL KLUBARI LAGUNTZA EMATEKO GASTUA BAIMENTZEKOA.

ZIOEN AZALPENA

Arabako Foru Aldundiak hainbat kanpaina garatu ditu ezinduen artean kirol jarduerak sustatzeko eta sendotzeko. Horren ondorioa da kirolak talde horretan izan duen igoera, bai kirolari kopuruari dagokionez bai kirol eskaintza eta kalitateari dagokionez.

Talde horien artean Zuzenak Kirol Kluba aipatu behar dugu, aitzindari izan baitzen ezinduen artean kirol jarduerak sustatzen, sendotzen eta garatzen.

Jarraitutasun horren ondorioz, klub horren kirol eskaintza anitzak erabiltzaile ugari ditu eta horietako kirolari batzuk goi mailan egotea lortu dute zenbait kiroletan: tiro pneumatikoan, mahai tenisean, atletismoan edo gurpil-aulkiko saskibaloian.

Zuzenak Kirol Klubarentzat orain dauden laguntzak “Ezinduentzako Jarduera Fisikoak” izenarekin Kirol Zerbitzuan dagoen partidatik bideratuko dira. Partida horren bitartez, diru-laguntza deialdi egokia dela medio, hainbat ezindu talderentzako laguntzak onartzen dira, lehiaketa-prozeduraz.

Horren ondorioz, egoera larritzen joan da eta lehen foru sail ezberdinetatik klubak jasotzen zuen kopuru 1osoa eta kirol sailetik bakarrik jasotzen duena ez datoz bat; desoreka ekonomikoa eragin du aldaketa horrek.

Egoera hori larritu egin da erabiltzaile berriak daudelako eta jarduera gehiago eta anitzagoak eskatzen dituztelako. Gainera, kirol batzuetan, gurpil-aulkiko saskibaloian adibidez, lehiaketa esparruan gora egitea lortu du klubak.

Horrengatik guztiagatik, egoera berezia eta oso zehatza delako, eta ezinduentzako kirolari laguntzeko dagoen partidaren barruan disfuntziorik ez sortzeko, eta Aurrekontuaren Luzapenari buruzko ekainaren 21eko 11/2004 Foru Arauan ezarritakoa betez, Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaie Zuzenak Kirol Klubaren alde 25.000 euroko gastua baimentzea. Gastu hori 2005eko ekitaldirako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2003ko Aurrekontuko “1.70.1.06. 82.06.461.00.28 Club Deportivo Zuzenak” aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da.

Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauaren 87. artikuluan, 3. idatz-zatian (Aurrekontuaren Luzapenari buruzko ekainaren 21eko 11/2004 Foru Arauak aldatua) ezarritakoaren arabera,

Artikulu bakarra.- Indarrean dagoen aurrekontu antolamendutik, Zuzenak Kirol Klubari laguntzeko 25.000 euroko gastua baimentzea onartzen da.

Azken Xedapena.- Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urriaren 17a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

Norma Foral 39/2005, de 17 de octubre, de autorización de gasto para apoyar al Club Deportivo Zuzenak.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**7.042**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 17 de octubre de 2005, han aprobado la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 39/2005, DE 17 DE OCTUBRE, DE AUTORIZACIÓN DE GASTO PARA APOYAR AL CLUB DEPORTIVO ZUZENAK.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las diferentes campañas desarrolladas por la Diputación Foral de Álava en pro del fomento y la consolidación de la actividad físico deportiva entre los discapacitados, se ha visto plasmada en el significativo aumento de la práctica deportiva de dicho colectivo, tanto en su vertiente de cantidad de usuarios, como en la oferta deportiva y en la calidad de la misma.

Entre los colectivos implicados se ha de destacar al Club Deportivo Zuzenak, pionero en estas actividades y dedicado a fomentar, consolidar y desarrollar actividades físico deportivas entre discapacitados físicos.

Fruto de su constancia es el elevado número de usuarios de su variada oferta deportiva, así como el alto nivel alcanzado por alguno de sus miembros en deportes adaptados tales como el tiro neumático, el ténis de mesa, atletismo o el baloncesto en silla de ruedas.

Las actuales ayudas al Club Deportivo Zuzenak, se canalizan a través de la partida existente en el Servicio de Deportes, denominada “Actividades Físicas para Discapacitados”, partida mediante la que, a través de la oportuna convocatoria de subvenciones, se aprueban ayudas a diversos colectivos de discapacitados, en régimen de concurrencia competitiva.

Esto ha producido, una situación que se ha venido agravando con el paso de los años, originando un desajuste económico entre la cantidad global que el Club recibía de las diferentes áreas forales y la que recibía, en exclusividad, desde el área de deportes.

Este hecho se ha agravado, más si cabe, con la aparición de nuevos usuarios, la demanda de más cantidad y más variada oferta de actividades y el ascenso deportivo que, en algunas modalidades como el baloncesto en silla de ruedas, han conseguido en el ámbito competitivo.

Por todo ello, por tratarse de una situación excepcional y muy específica y para no crear disfunciones dentro de la partida existente de ayuda al deporte para discapacitados y, en cumplimiento de lo establecido en la Norma Foral 11/2004 de junio, de Prórroga Presupuestaria, es por lo que se propone la aprobación por las Juntas Generales de Álava de la autorización del gasto, a favor del Club Deportivo Zuzenak, por un importe de 25.000 euros, que será financiado con cargo a la partida presupuestaria “1.70.1.06.82.06.461.00.28 Club Deportivo Zuzenak”, del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2005.

En virtud de lo establecido en el artículo 87, apartado 3º de la Norma Foral 53/92, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, en redacción dada por la Norma Foral 11/2004 de junio, de Prórroga Presupuestaria.

Artículo único.- Se aprueba la autorización del gasto, de la Ordenación Presupuestaria Vigente, por importe de 25.000,00 euros, para el apoyo al Club Deportivo Zuzenak.

Disposición Final.- La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2005.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

Norma Foral 39/2005, de 17 de octubre, de autorización de gasto para apoyar al Club Deportivo Zuzenak.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.038**

**Zerga Premiazko Araugintzako 3/2005 zenbakiko Dekretua, Alkoholaren eta alkoholdun edarien gaineko eta Tabako lanen gaineko Zergen tasak aldatzea onartzen duena, berresteko erabakia.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2005eko urriaren 17ko Osoko Bilkuran erabaki zuten Zerga Premiazko Araugintzako 3/2005 Dekretua berrestea, zeinaren bidez Alkoholaren eta alkoholdun edarien gaineko eta Tabako lanen gaineko Zergen tasak aldatzen diren. Dekretu hau Diputatu Kontseiluak 2005eko irailaren 27an onartu zuen eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean 111. zenbakian argitaratu zen 2005eko urriaren 3an.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urriaren 20a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**7.038**

**Acuerdo de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal número 3/2005, que aprueba la modificación de los tipos impositivos de los Impuestos sobre el Alcohol y las bebidas alcohólicas y sobre las Labores de Tabaco.**

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 17 de octubre de 2005, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal número 3/2005 que aprueba la modificación de los tipos impositivos de los Impuestos sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas y sobre las Labores del Tabaco, aprobado por el Consejo de Diputados el día 27 de septiembre de 2005 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 111 de fecha 3 de octubre de 2005.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2005.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.